

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

AUTOA PARTEKATZEA

Dirua eta denbora aurrezteko balio du eta ingurumena hobeto zaintzeko ere bai. Helburu horiexekin partekatzen du hainbat jendeak autoa. Aukera erraza da, edonoren esku dagoena. Aski da ibilbidea bilatzea, gidariarekin harremanetan jartzea, lekuren bat gordetzea eta elkartzeko tokian egotea agindutako egun eta orduan. Gaur egun Interneteko zenbait plataforma sortu dira autoa partekatu eta bidaiatzeko garaian euro batzuk aurrezteko. *BlaBlaCar*, *Amovens* eta *Cocheamigos.com* dira horietako batzuk. Oso antzekoa eta erraza da funtzionamendua.

Lehenik eta behin erregistratu egin behar da horrelako plataforma batean, eta norberak zer-nolako bidaia egin nahi duen argitaratu. Abiaturuko hiria eta helmugakoa zein diren adierazi behar da, baita data ere, eta egunero argitaratzen diren aukeren artean bilatu. Gainera, plataformek alerta zerbitzua edo jakinarazpen mezuak sor ditzakete, norberak interesa duen bidaien berri emateko. Ibilbidea zehazteko orduan, zenbait egoera adierazi daitezke, adibidez, ez dugula arazorik bidean geldialdiren bat egiteko, edo trabagarria zaigula erretzen duen jendearekin edo maskotaren bat daramanarekin partekatzea bidaia.

Bigarren pausoa webgunearen bidez gidariarekin harremanetan jartzea da. Gidariak posta elektronikoz jasoko du ibilgailuan lekua gordetzeko eskaera, eta onartu edo baztertu egin beharko du. Bidaiariak ere aukeratu dezake. Bidaia jakin bat hautatu eta lekua gorde aurretik, oso lagungarria da gidarien profilari begiratu bat ematea: argazkia, biografia eta aurrez harekin bidaiatu dutenen iritziak. Azken aukera horrek segurtasun handia ematen du bidaia zer-nolakoa izan daitekeen jakiteko.

Bidaia partekatu bat hautatzen denean, ia plataforma guztiek eskatzen diote bezeroari lekua gordetzeko diru-txartelez ordainketa egitea. Hori egin ostean, erreserba-kode bat jasotzen da eta gidariarekin harremanetan jarri behar da, harekin joango dela jakinarazteko. Ibilbidearen inguruan gauza gehiago jakin nahi

izanez gero edo xehetasunen bat argitu nahi izanez gero, gidariari deitzeko eta nahi den guztia galdetzeko aukera dago. Bidaia itxita gelditzen da horrela, nahiz eta beti dagoen aukera erreserba ezeztatzeko, ustekabekoren bat gertatzen bada. Aukera hori ez da plataforma guztietan posible, baina gehienetan bidaia hasi aurreko 24 orduetan ezeztatzen bada, diru guztia itzuli ohi dute.

Aurreko pauso guztiak eman ondoren, hitzartutako egun eta orduan agindutako lekura garaiz azaltzeaz gainera, gidariari erreserba-kodea eman behar zaio, bidaiaren truke dagokion diru-ordaina jasotzeko. Zerbitzua lehenbiziko aldiz erabiltzen badugu edo zalantzarik sortzen badigu, aukera bat da senitartekoei edo lagunei ematea gidariaren telefonoa eta izena, lasaiago egoteko. Ibilbidean zehar, normalena da beste bidaiariekin (baldin badaude) eta gidariarekin hizketan joatea. Baina norbait oso nekatuta badago edo hitz gutxikoa bada, oharretan jar dezake ez duela maite hizketan joatea. Autoa partekatu ondoren, egokiena da gidariari buruzko iritzia plataforman uztea eta haren jarduna baloratzea. Gainerako bidaiariekin ere gauza bera egin daiteke, nahi izanez gero. Iritzi horiek oso baliagarriak izaten dira noizbait ibilgailua partekatu nahi dutenentzat.

Autoa partekatzen denean, desadostasunak sor daitezke edo gorabeheraren bat izan daiteke. Halakorik gertatzen bada, ohikoena da erabili den plataforman jartzea erreklamazioa eta bertan azaltzea zergatik ez den ibilbidea egin edo bidean zer gertatu den. Gidaria eta bidaiaria ez badira ados jartzen, bezeroari erantzuteko zerbitzukoek argitu beharko dute zer gertatu den eta haiek eman beharko diote irtenbidea egoerari, bi aldeek emandako informazioa eskuratu ondoren.

<www.consumer.es>, 2016ko azaroa. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 1. Zer helburu dute autoa partekatzen dutenek?**
 - a) Helburu bakarra ekonomikoa da, euro batzuk aurrezte.
 - b) Ekonomikoa ez ezik, ingurumena zaintzea ere bada.
 - c) Dirua eta denbora aurrezteaz gain, harremanak izatea.
- 2. Zer egin behar da autoa partekatu nahi bada?**
 - a) Interneteko plataformen zerbitzuak alderatu, desberdinak baitira.
 - b) Erregistratu ondoren, alerta-zerbitzua sortuko dugu bidaia zehazteko.
 - c) Erregistratu, bidaiaren zehaztasunak jarri eta aukera bilatu.
- 3. Zer adierazi daiteke ibilbidea zehazteko orduan?**
 - a) Ez dugula erretzaileekin partekatu nahi, besteak beste.
 - b) Gauza handirik ez, abiaburua eta helmuga baino ez.
 - c) Maskotarik edota fardelik eramango dugun.
- 4. Zerk ematen dio bidaiariari segurtasun handia?**
 - a) Gidariaren profila eta beste bidaiarien iritziak irakurtzeak.
 - b) Eskaintza onartzeko edo baztertzeko aukera izateak.
 - c) Gidariarekin telefonoz aurrez aurre harremanetan jartzeak.
- 5. Zer gertatzen da bidaiariak bidaia ezeztatu nahi badu?**
 - a) Ez dago arazorik plataforma guztiek aukera hori baitute.
 - b) Bidaia hasi aurreko 24 orduetan bada, diru zati bat galtzen du.
 - c) Dirua berreskura dezake, bidaia baino egun bat lehenago bada.
- 6. Zer da komenigarria zerbitzua lehenengo aldiz erabiltzean?**
 - a) Senitartekoei edo lagunei ibilbidearen berri ematea.
 - b) Gidariari senitartekoen telefonoa ematea, lasaiago egoteko.
 - c) Baten bati gidariaren izena eta telefonoa ematea.
- 7. Zer da egokiena autoa partekatu ondoren?**
 - a) Gidariaren eta bere jardunaren inguruko balorazioa egitea.
 - b) Beste bidaiarien bidaiari buruzko iritziak irakurtzea.
 - c) Plataformaren zerbitzuari buruzko iritzia adieraztea.
- 8. Zer gertatzen da gidari eta bidaiarien arteko desadostasunetan?**
 - a) Plataforman ez dago erreklamatzeko aukerarik.
 - b) Plataformek badute zerbitzu bat holako kasuetarako.
 - c) Plataformak bitartekari lana egingo du haiek ados jartzeko.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

BIRAKA IRITSI DEN EZTABAIDA

Modan daude, zalantzarik gabe. Gero eta ohikoagoa da Euskal Herriko parkeetan edo ikasgeletan haurrak edo gaztetxoak *heelys* edo zapatila gurpildunak jantzita ikustea. Korrikaldi labur bat egin, oinaren aurrealdea altxatu, pisua orpoaren gainean jarri eta irristaka hasi. Dibertigarriak dira, jostagarriak, ondo pasatzeko erabilgarriak, beste edozein jostailu bezala. **9** Oinen osasunean kalteak eragin ditzake gehiegi erabiltzeak, epe motzera zein luzera.

Zapatila horien erabileraren ondorioak ikertu ditu Elxeko Unibertsitateak. 3 eta 11 urte arteko haurren oinak aztertu ditu eta ondorioztatu du halakoak gehiegi erabiliz gero kaltegarriak direla pisuagatik, takoiaren garaieragatik, malgutasun murriztagatik eta egonkortasun ezagatik. **10** Ikastolen Elkartek ez du, oraingoz, *heelys*-ak debekatzeko asmorik. Erabilera galaraziz gero, beste hainbat eremutan esku hartu beharko litzatekeela uste dute eta erabakia gurasoen esku dagoela diote. Ikastolen Elkarteak duela zazpi edo zortzi urte konturatu zen oinetakoen desegokitasunaz, erabiltzen zituzten haurrak ohi baino gehiagotan erortzen baituzten. Horregatik oharra helarazi zieten gurasoei egunero erabiltzearen kalteez ohartarazteko eta, jolastokian patina debekatuta dagoen bezala, ezin direla zapatila gurpildunak erabili adierazteko.

Baina, zergatik dira hain desegokiak zapatila gurpildunak? Zein kalte eragin dezakete? Gako nagusia da egiten den erabilera desegokia. Egundero zortzi orduz erabiliz gero, kalte egin dezakete. Ez da gomendagarria egunero erabiltzea; jostailuak dira, ondo dago asteen pare bat orduz erabiltzea, baina ez askoz denbora gehiago. **11**

Heel hitza takokia da ingelesez, eta takoiak bezalakoak dira oinetan jarri behar diren gurpilak. Bost bat zentimetrarainokoak izan daitezke, modeloaren arabera. **12**

Haurrek ezetz esaten badute ere, hainbeste orduz erabili ondoren mina izan ohi dute. Normalean, zapatarik gabe ibiltzen garenean, orpoarekin egiten da indarraren % 75; zapatila gurpildunekin, berriz, erdia edo gehiago egiten da aurreko aldearekin. Gainera, oinetako normalek halako bi pisatzen dute eta, horren ondorioz, ibiltzeko egin beharreko indarra handiagoa izan behar da. Jasotzen dituzten estimuluen arabera garatzen dira oinak, eta garapen hori baldintzatu dezakete oinetako gurpildunek. **13**

Orpoa ez garatzeak giharra murriztuko du eta honek hainbat osasun-arazo ekarriko dizkie zapatila gurpildunen erabiltzaileei. Ez da erraza arazo horiek sendatzea, denbora behar da eta.

Kezka ez da berria, ez podologoaren artean, ezta gizartean ere. 1999koa da patentea, Roger Adamsena. Urte gutxi geroago hasi zen produktua merkaturatzen *Heelys, Inc* enpresa. Oinetako gurpildunak modan egon ziren duela sei edo zortzi urte; berritzaileak ziren, desberdinak, eta haur gehienek nahi zituzten. Hain zen handia erabilera munduko hainbat lekutan, non neurriak hartu baitzituzten. **14** Aldapaz jositako herria da, eta «arriskutsuegiztat» jo zituzten agintariek. Urte berean, artikulu bat plazaratu zuen Irlandako pediatria talde batek Ameriketako Estatu Batuetako *American Academy of Pediatrics* aldizkarian, oinetako horiek erabiltzeak eragindako lesioak aztertzeke. Erorikoek eragindakoak ziren, gehienbat: eskumuturra apurtzea, ukondoa haustea edo lokatzea... **15**

Zapatila mota ugari daude merkaturatzen: gurpil bakarrekoak edo bi gurpilekoak; gurpila ken daiteke gehienetan, baina badira finkoak ere. Neskek erabiltzen dituzte, gehienbat, zapatila gurpildunak. **16** Modan daude, berriro, eta ez da hain arraroa neska-mutilak *heelys*-ak soinean dituztela joatea ikastolara.

LASA, I. *Berria*, 2016ko apirilaren 26a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Orpo-hezurra, gorputzaren pisua jasaten duena, behar baino gutxiago garatuko da eta, horren ordez, aurrealdea garatuko dugu.
- B. Haiantzakoak dira iragarki gehienak, eta dendetako nesken atalean aurkitu daitezke, kolore argitsuz beteta.
- C. Beste aldetik, zapatila gorpildunek badute abantailaren bat edo beste, esate baterako, patinek bezala, oreka mantentzeko gaitasuna lantzeko balio digute.
- D. Ezbeharren erdia baino gehiago *heelys*-ak jantzitako lehen bost aldietan gertatu ziren, nola erabili ikasten ari zirenean, inork ere ez zeramalako babesik.
- E. Izan ere, izatez, jostailuak dira zapatila gorpildunak, ez oinetako normalen ordezkoak, baina gehiegi erabiltzen dituzte, egunero, bestelako oinetakoen ordezko gisa.
- F. Zapaltzeko era aldatzen du takoiak, gehiago erabiltzen da oinaren aurrealdea eta gainkarga eragiten du horrek, gihar horiek ez daudelako halako esfortzuetara ohituta.
- G. Gure seme-alabei egun osoan bideo-jokoetan jolasten uzten ez diegun bezala, ez genieke utzi beharko egunero oinetan jostailu bat daramatela eskolara joaten.
- H. Gehiegizko erabileraren ondorioak ikusita, oinetako horiek eskoletan erabiltzea debekatzeko eskatu du *Espainiako Podologoien Elkargoko Batzorde Orokorrak*.
- I. Yeovilgo Udalak (Ingalaterra) debekatu egin zituen 2007ko otsailean, eta norbait zapatila gorpildunekin irristatzen ibiliz gero, 643 bat euro arteko isuna jaso zezakeen.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

BILBOKO UDALAREN LEHEN HIRI ORTUAK

Bilboko Udaleko Obra eta Zerbitzuen Sailak Errekalde auzoan hiri-ortuen esperientzia pilotua jarriko du abian. Ekimen hau Obra eta Zerbitzuen Saila garatzen ari den Auzo Bihotzen **17** barruan dago. Bilboko Udalak auzotarren bizi-kalitatea hobetu nahi du aisialdia pasatzeko espazio berri bat abian jarri. **18** auzoko bizitza soziala dinamizatu, auzotarrak kohesionatu eta hurbileko **19** eta bizi-espazio berriak sortu nahi ditu. Ekipamendu honek auzotarrak Bilboko Eratzun Berdera hurbilduko ditu.

Hiri-ortuen lursaila San Antonio parkearen aurrean dago. Auzotarrekin **20** egokitasuna kontsultatuta, lursail hori aukeratu da. Lursailetik hurbil garraio publikoa dago, Bilbobuseko 76. linea. **21**, San Antonio parkeko komunak eta aparkalekua erabili ahalko dira. Egitasmoak hogeita hiru ortu sortzea **22** du. Lur-zati bakoitzak berrogei metro koadro izango ditu eta espazio komun bat egongo da, estalia, tresnak biltzeko eta takilak jartzeko.

Obra eta Zerbitzuen Sailak udalaren hiri-ortuei **23** sozial garrantzitsua eman nahi izan die, kontzesiorako baldintzen orriaren bidez. Loteka emango zaizkie hiri-ortuak kolektibo batzuei. **24** irekia egongo da eta bi urteko eperako emango zaizkie lursail horiek. Aldi hori urtebetez luzatu ahalko da. **25** apiriletik aurrera aurkez daitezke. Ortueta laborantza ekologikoa izango da eta lursailak lortzen dituztenek espazioa zaintzeko lanetan eta antolatzen diren dinamizazio-ekintzetan parte hartu beharko dute, **26**, ingurumen balioak zabaltzeko *Eskolarteko 21 Agendako* umeekin kolaboratu beharko dute.

Lur-zatian landutako generoa ezin izango zaie hirugarrenei saldu. **27** hauek egongo dira lur-zatiak esleitzeko:

- Bederatzi lur-zati auzoko herritarrentzat izango dira. Norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Hemezortzi eta hogeita lau urte bitartekoek eta hirurogeita bost urtetik gorakoek **28** izango dute.

- Bost lur-zati auzoko familientzat izango dira.

- Lau lur-zati auzoko **29** izango dira. Zenbat eta urte gehiago langabezia, orduan eta puntuazio handiagoa lortuko dute aurkezten direnek.

- Bi lur-zati auzoko irabazi-asmorik gabeko elkarreentzat izango dira.

- Bi lur-zati ezintasunak dituzten pertsonentzat edo ezintasunak dituzten pertsonen elkarreentzat izango dira. Auzoan **30** dauden pertsona ezinduek edo elkarrearen egoitza duten ezinduen elkarreentzat puntu gehiago lortuko dituzte. Elkarreentzat **31** aurkezten duten kudeaketa-proposamena ere baloratuko da.

- Lur-zati bat Bilboko irabazi-asmorik gabeko elkarreentzat izango da. Sustapen, dinamizazio eta **32** soziala eta Bilboko ingurune naturalaren sustapena bultzatzen dituen elkarreentzat izango da. Gazteen aisialdia sustatzea baloratuko da, baita auzoan dauden taldeei lotuta egotea ere; **33**, auzoko mendi-taldeak, scout-taldeak, parrokiakoak edo gizarte eta hezkuntza-arloan esku hartzeko taldeak izatea bereziki baloratuko da.

Ortuen lekua eta loteak emateko baldintzak auzoko zenbait talderekin **34** dira azken urteetan: Errekaldeko jubilatuek eta pentsionisten elkarreentzat, Errekaldeko langileen asanblada, Gazteleku, Errekaldeko komunitateko garapen elkarreentzat eta *Errekaldeberriz* auzo elkarreentzat.

<www.bilbao.net>, 2015eko martxoaren 25a. Egokitua

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) aurkibidearen
b) proiektuaren
c) legealdiaren
d) adibidearen

- 18.a) Batez beste
b) Alabaina
c) Hala ere
d) Horren bidez

- 19.a) gotorleku
b) sorleku
c) babesleku
d) topaleku

- 20.a) kokapenaren
b) ondasunaren
c) bitartekoaren
d) onuraren

- 21.a) Bestela
b) Ordea
c) Gainera
d) Harrezkero

- 22.a) sakontzen
b) arakutzen
c) aurreikusten
d) sailkatzen

- 23.a) izaera
b) gogoeta
c) harrera
d) portaera

- 24.a) Bilaketa
b) Lehiaketa
c) Prestaketa
d) Antolaketa

- 25.a) Irabaziak
b) Premiak
c) Balioak
d) Eskariak

- 26.a) berez
b) alderantziz
c) esaterako
d) berriz

- 27.a) Irtenbide
b) Baliabide
c) Aurrerabide
d) Irizpide

- 28.a) lehentasuna
b) larritasuna
c) xehetasuna
d) zaletasuna

- 29.a) eragileentzat
b) bizilagunentzat
c) langabeentzat
d) ekintzaileentzat

- 30.a) prestatuta
b) erroldatuta
c) hunkituta
d) aurreratuta

- 31.a) alde
b) ordez
c) kasuan
d) zain

- 32.a) kezka
b) iraupen
c) eragozpen
d) kohesio

- 33.a) hau da
b) aldiz
c) dena den
d) baizik

- 34.a) zorroztu
b) adostu
c) gogortu
d) sakabanatu

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udaleko langilea zara. Orain dela hilabetetik, herritarrek zure sailean zita eskatzeko eta beste tramite batzuk egiteko Internet erabili behar dute ezinbestean. Erabakiak arazoak baino ez ditu ekarri eta asko dira udaletxera neurriaren kontra protestatzera egunero joaten direnak.

Horregatik, zure arduradunari gutuna idaztea erabaki duzu neurriak sortutako arazoak azaltzeko eta beste sistema bat proposatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Txakurren kaka dela eta, herriko kaleetan sortu den arazoari irtenbidea emateko, Udalak neurri hauek proposatu dizkie herritarrei: isun handiak, garbitzeko baliabide gehiago edo jabeak kontzientziazteko kanpainak.

Gaiaren garrantziaz jabeturik, idatzi herriko aldizkarian arazoa azaltzeko, Udalak proposatutako neurriei buruzko iritzia emateko eta neurririk eraginkorra aukeratzeko.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa. Aukeratu erantzuna**
- **Irakurgaia: «AUTOA PARTEKATZEA»**

1.	B	2.	C	3.	A
4.	A	5.	C	6.	C
7.	A	8.	B		

- **2. ariketa. Sartu testu zatia dagokion hutsunean**
- **Irakurgaia: «BIRAKA IRISTEN DEN EZTABAIDA»**

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	E	H	G	F	A	I	D	B

Soberakoa	C
-----------	---

- **3. ariketa. Hutsuneak bete**
- **Irakurgaia: «BILBOKO UDALAREN LEHEN HIRI ORTUAK»**

17.	B	18.	D	19.	D
20.	A	21.	C	22.	C
23.	A	24.	B	25.	D
26.	C	27.	D	28.	A
29.	C	30.	B	31.	C
32.	D	33.	A	34.	B